



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko apirilaren 5a

43. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, hondakinen balorizazioari eta biogasaren aprobetxamenduari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, Alhamaren ibarreko garraio publikoari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (4. or.).
- Galdera, Lufthansa konpainiaren nazioarteko hegaldiak berreskuratzeko eginiko urratsei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, garraiolarien grebari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, greban dauden garraiolarien errebindikazioei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legea garatzeari ekiteko Espainiako Gobernuari eginiko eskaerari buruzkoa. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egin du (7. or.).
- Galdera, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera hurrengo hiru hilabeteetan handitzeari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko curriculumari buruzko dekretuak argitaratzeari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (8. or.).
- Galdera, umetokiko lepoko minbiziaren kasuen diagnostikoari buruzkoa. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak egin du (9. or.).
- Galdera, 2021eko ekitaldiko errenta aitortpenaren kanpainari buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Nafarroako osasun-sistema publikoarekiko konfiantzari buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (10. or.).

- Galdera, ETaren kondena espresua I. Bizikidetzaren Planean jasotzearen gaineko erabaki proposamen bat bozkatzeari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, eskola-garraioaren antolaketa eta funtzionamendua eta eskola-jantokirako banakako laguntzak arautzen dituen foru aginduari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Osasun Zientzien Fakultatearen eraikin berria egiteko lehia-
ketari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroan osasun arloko aseguru pribatuek izandako bilakaerari buruzkoa. Cristina Ibarrola Gui-
llén andreak egin du (13. or.).
- Galdera, EH Bilduk eta Nafarroako Gobernuak ekainaren 2ko 4/2008 Foru Dekretuko 68. artikuluan
aurreikusitako zenbatekoak aldatzeko sinaturiko akordioa betetzeari buruzkoa. Patricia Perales Hurtado
andreak egin du (13. or.).
- Galdera, toki entitateek jasaten dituzten zerbitzu-kostuen igoerei buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak
egin du (14. or.).
- Galdera, Espainiako Gobernuak Ogasun Ministerioari Nafarroako Foruzaingoaren lanaldien, ordutegien
eta ordainsarien erregelamenduzko garapena egin ahal izateko gaikuntza bereziaren eskaera ofiziala aur-
keztu izanari buruzkoa. José Suárez Benito jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Herritarrekiko Harremanetako Batzordeak hartutako jarreraren ondoren Nafarroako I. Bizikide-
tza Plan Estrategikoak duen egoerari buruzkoa. Jabi Arakama Urtiaga jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Espainiako Gobernuak onetsitako alokairu-prezioaren mugaketari buruzkoa. Mikel Buil García
jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak gure foru-erkidegoaren energia-autonomia azkartzeko hartuko dituen
neurriari buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, jakiteko zer neurri estruktural hartuko diren energia-hornidura eskuratu ahal izatea bermatze
aldera. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (17. or.).
- Galdera, Euriborraren gorakadari eta goranzko joerari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, erregaiaren litroko hogeitazentimoko dirulaguntza ezartzeak Foru Ogasunean izanen duen eragi-
nari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, Ukrainaren inbasioaren inpaktu ekonomiko eta sozialari erantzuteko plan nazionalari eta plan
horretara Nafarroako Foru Komunitatetik eginiko ekarpenei buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin
du (19. or.).
- Galdera, krisi honetan kaltetuenik suertaturiko herritar eta sektoreentzako laguntza berririk ezartzeari
buruzkoa, Espainiako Gobernuak jada iragarri dituenen osagarri izanen direnak. José Javier Esparza
Abaurrea jaunak egin du (19. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proposamena, babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzekoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzeko Foru Lege proposamenari zuzenketak aur-

kezteko epea **2022ko apirilaren 25eko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea (10-22/PRO-00001).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, hondakinen balorizazioari eta biogasaren aprobetxamenduari buruzkoa.*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztutako galdera, hondakinen balorizazioari eta biogasaren aprobetxamenduari buruzkoa (10-22/POR-00141).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako ahozko galdera egiten dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer estrategia aurreikusi du Nafarroak Gobernuak hondakinen balorizaziorako (nekazaritza eta abeltzaintzakoak, nekazaritza eta elikagaien industriakoak, udalerrietakoak eta araztegiak) eta biogasa bi bide nagusiren bidez aprobetxatzeko (elektrizitatea eta bero erabilgarria ekoiztea, batez ere industriarako, eta bioerregai gisa erabiltzea)?

Iruñean, 2022ko martxoaren 28an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Galdera, Alhamaren ibarreko garraio publikoari buruzkoa.*MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alhamaren ibarreko garraio publikoari buruz María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera (10-22/POR-00142).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten du, Parlamentu honen hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Iruñeak eta Iruñerriak, Nafarroako hiriburua den aldetik, gure erkidegoko zerbitzu eta administrazio publiko gehienak hartzen ditu. Nafarroako herritar askok etorri behar izaten dute Iruñera aipatu zerbitzuak baliatzeko edo administrazioarekiko izapideak egiteko.

Erriberan, Alhamaren ibarrak 18.352 biztanle ditu Corellan, Cintruenigon eta Fiteron banatuta, eta haiek bizi duten egoera Iruñerako garraio publikoari dagokionez, ez da normala.

Esaterako, Corellan (8.220 biztanle) astez egunean autobus zerbitzu bakarra dago Iruñera etortzeko, arratsaldeko 16:36an, eta Iruñetik itzultzeko beste bat, goizeko 11:00etan. Handik gertu dagoen Fiterok (2.081 biztanle) ordutegi berak

ditu. Cintruenigon (8.051 biztanle), Iruñera joateko hiru autobus daude, guztiak arratsaldean (16:23an, 19:06an eta 23:29an, eta beste hiru handik itzultzeko (11:00etan, 14:00etan eta 16:15ean).

Ordutegi horiek ez dira bateragarriak medikua-rengana joateko hitzorduen edota Administrazioarekiko izapideak egiteko plangintzarekin, eta ibilgailu propiorik ez duten herritarrak babesgabetsun egoeran geratzen dira.

Garraio publikoak plangintza bat izan behar du, Nafarroako lurralde-egituraketa sozioekonomikora bideratua, bai eta ingurumen-jasangarritasunera ere, lehentasuna emanaz joan-etorri kolektiboek norberaren ibilgailuaren erabileraren gainetik, eta hori bateraezina da Alhamaren ibarra eta Iruña arteko autobus ordutegiekin.

Lurralde Kohesiorako Departamentuak ba al du egoera anomalo horren berririk? Neurriren bat hartuko al du Alhamaren ibarrean beharriaz erantzun eta garraio publiko egokia izan dezaten?

Iruñean, 2022ko martxoaren 28an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, Lufthansa konpainiaren nazioarteko hegaldiak berreskuratzeko eginiko urratsei buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Lufthansa konpainiaren nazioarteko hegaldiak berreskuratzeko eginiko urratsei buruzkoa (10-22/POR-00143).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak Batzordean ahoz erantzun diezaion:

Zer jarduketa egin du zure departamentuak Iruña-Noaingo aireportuan Lufthansa konpainiarekin nazioarteko hegaldiak berreskuratzeko?

Iruñean, 2022ko martxoaren 28an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, garraiolarien grebari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea garraiolarien grebari buruz Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera (10-22/POR-00144).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lurralde Kohesiorako Batzordean izapideztea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du garraiolarien grebari buruz?

Iruñean, 2022ko martxoaren 28an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, greban dauden garraiolarien errebindikazioei buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea greban dauden garraiolarien errebindikazioei buruz Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera (10-22/POR-00145).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lurralde Kohesiorako Batzordean izapideztea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Batzordean ahoz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernua bat al dator greban dauden garraiolarien errebindikazioekin?

Iruñean, 2022ko martxoaren 28an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legea garatzeari ekiteko Espainiako Gobernuari eginiko eskaerari buruzkoa.

BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legea garatzeari ekiteko Espainiako Gobernuari eginiko eskaerari buruzkoa (10-22/POR-00146).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, lehen lehendakariorde eta Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Prentsak argitaratu dituen azken informazioak direla-eta, Nafarroako Gobernuak eskaria modu formalean helarazi ote dion Espainiako Gobernuari Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legea ordainsarien esparruan erregelamenduz garatzeari dagokionez, honako galdera hau aurkezten zaio lehen lehendakariorde eta Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariari:

Zertan da gai hori?

Iruñean, 2022ko martxoaren 29an

Foru parlamentaria: Blanca Regúlez Álvarez

Galdera, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera hurrengo hiru hilabeteetan handitzeari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera hurrengo hiru hilabeteetan handitzeari buruzkoa (10-22/POR-00147).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko eledun Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasuneko honako galdera hau egiten du, hurrengo kontroleko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Joan den astelehenean Gobernuako lehendakariak neurri-sorta bat aurkeztu zuen gerraren eraginen aurkako talka planaren barruan, datorren ekainaren 30era arte guztira 16.000 milioi euro eginen duena. Babes handiena jasoko duten kolektiboetako bat izanen dira "ahulenak", lehendakariaren hitzetan. Horretarako, Gobernuak iragarri zuen % 15eko igoera bizitzeko gutxieneko

diru-sarreraren zenbatekoan, apiriletik ekainera bitarteko hiru hilabeteetan.

Kontuan hartuta iragarpen hori eta, batez ere, Estatuko Gobernuaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko akordioa, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren kudeaketa Nafarroako Gobernuari eskualdatzekoa, arazo bat sortzen da, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren igoera horren balizko

eragina apirilean, maiatzean eta ekainean errenta bermatua jasotzen duten familiengan.

Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera horrek ukituko al ditu errenta bermatua jasotzen duten familiak, apirilean, maiatzean eta ekainean?

Iruñean, 2022ko martxoaren 30ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko curriculumari buruzko dekretuak argitaratzeari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko curriculumari buruzko dekretuak argitaratzeari buruzkoa (10-22/POR-00148).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, hurrengo kontrolleko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

2022-2023 ikasturtean Nafarroan ezarri egingen dira LOMLOek jarritako aldaketak, Lehen Hezkuntzako 1., 2. ta 3. mailako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 3. mailako eta Batxilergoko 1.curriculum, antolaketa eta helburuei dagokienez, oinarritzko heziketa zikloetako 1. mailaz gain.

Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako mailak ukitzen dituzten gutxieneko irakaskuntzei buruzko errege dekretuak berriki argitaratu dira, atzerapen handiarekin (martxoaren 1eko 157/2022 Errege Dekretua, Lehen Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak ezarri eta antolatzen dituen, eta

martxoaren 29ko 217/2022 Errege Dekretua, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak ezarri eta antolatzen dituen) Batxilergoari buruzko errege dekretua ez da oraindik argitaratu.

Beraz, irakaskuntza horiei buruzko curriculumaren gaineko foru dekretuak ez dira oraindik argitaratu. Ez ikastetxeek ez ikasleek eta familiekin ere, ez dute ezagutzen datorren ikasturtean garatuko den curriculum.

Zehaztu gabe daude Nafarroako Foru Komunitatearen eta bertako ikastetxeen curriculum-autonomia gauari dagozkion curriculum eta curriculum-eremuak. Gauza bera aukerakoen eskaintzari dagokionez.

Testuinguru horretan, 2022-2023 ikasturteko eskolatzeko prozesuak garatzen ari dira Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek jaso egin dute martxoaren 23ko 99/2022 Ebazpenaren zirriborroa, non arautzen baita 2022-2023 ikasturteko onarpen prozesua, Nafarroako Aldizkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea, egutegia bezala.

Noizko aurreikusten du Hezkuntza Departamentuak argitaratzea Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakaskuntzetako curriculumari buruzko dekretuak eta zer orientazio eman zaie ikastetxeei eskolatzeko prozesuetan parte har dezaten curriculum eza gutu gabe?

Iruñean, 2022ko martxoaren 30ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, umetokiko lepoko minbiziaren kasuen diagnostikoari buruzkoa.

ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkeztutako galdera, umetokiko lepoko minbiziaren kasuen diagnostikoari buruzkoa (10-22/POR-00149).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Berriki jakin dugu Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak 2021ean umetokiko lepoko minbiziaren 18 kasu diagnostikatu zituela. Haietako % 60 inguru, portzentaje altua benetan, fase aurreratuan gertatu ziren, tratamendu erasokorra-
goak eta askoz pronostiko txarragoa ekarrita.

Hori dela eta, kontseilariari galdetzen diogu:

Zergatik atzeratu da diagnostikoa eta zer epe-
tan ezarriko da populazioan baheketa, minbiziaren prebentziorako planaren barruan?

Iruñean, 2022ko martxoaren 31n

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

Galdera, 2021eko ekitaldiko errenta aitortpenaren kanpainari buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, 2021eko ekitaldiko errenta aitortpenaren kanpainari buruzkoa (10-22/POR-00150).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer ikuspegirekin ekinen dio Nafarroako Foru Ogasunak 2021eko ekitaldiko errenta aitortpenaren kanpainari?

Iruñean, 2022ko martxoaren 31n

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Gárate

Galdera, Nafarroako osasun-sistema publikoarekiko konfiantzari buruzkoa.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako osasun-sistema publikoarekiko konfiantzari buruzkoa (10-22/POR-00151).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Uste al duzu herritarrek Nafarroako osasun publikoari begira duten konfiantza apurtu egin dela pandemiako bi urteren ondoren?

Iruñean, 2022ko martxoaren 31n

Foru Parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

Galdera, ETaren kondena espresua I. Bizikidetzaren Planean jasotzearen gaineko erabaki proposamen bat bozkatzeari buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztutako galdera, ETaren kondena espresua I. Bizikidetzaren Planean jasotzearen gaineko erabaki proposamen bat bozkatzeari buruzkoa (10-22/POR-00152).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten du Gobernuak EH Bilduk aurkako botoa eman izanaz Nafarroako Alderdi Sozialistak aurkeztutako erabaki proposamen baten aurrean, non eskatzen baitzen Bizikidetzaren I. Planean ETaren kondena espresua sartzea?

Iruñean, 2022ko martxoaren 31n

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Galdera, eskola-garraioaren antolaketa eta funtzionamendua eta eskola-jantokirako banakako laguntzak arautzen dituen foru aginduari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, eskola-garraioaren antolaketa eta funtzionamendua eta eskola-jantokirako banakako laguntzak arautzen dituen foru aginduari buruzkoa (10-22/POR-00153).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno Gurpegui jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Joan den martxoaren 8an Hezkuntza Departamentuak argitara eman zuen foru agindu baten zirriborroa, Nafarroako Foru Komunitatean eskola-garraioaren antolaketa eta funtzionamendua eta eskola-jantokirako banakako laguntzak arautzen dituen, zeina joan den martxoaren 30era arte jendaurrean egon baita.

Aipatu foru aginduan ikasle onuradun gisa sartzen dira, garraio kolektiboaren edo banakako laguntzen modalitatean, Batxilergoko eta Maila Ertaineko Lanbide Heziketako ikasleak, beti ere gainerako ikasleendako ezarritako baldintzak bete gero.

Beraz, araudi berriak ahalbidetuko du ikasle jakin batzuei irisgarritasuna hobetzea. Baina zalantzak sortzen zaizkigu alderdi batzuei buruz.

Esate baterako, 2. artikuluan, eskola-garraioaren ikasle onuradunak arautzen dituen horretan, 3. apartatuak honela dio: “derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzetan, ordutegia luzatzea dakarten jarduera edo programa espezifikoak egiten dituzten ikasleek garraiorako eskubidea izanen dute bakar-bakarrik ordutegiak ikastetxean ezarritako ordutegi orokorrenekin bat datozenean”.

Edo 6. artikuluan, garraio kolektiboaren antolaketa-erako irizpide orokorrak ezartzen dituen horretan, non 2. apartatuak honela baitio: “oro har, eskola-garraio kolektiboa antolatuko da ibilbidean gutxienez ere lau erabiltzaile daudenean. Ba-

txilergoan gutxienekoa bederatzirabiltzailerena izanen da.

Eskubide-berdintasuna eta ekitatea oinarri, kontuan hartuko al dira D ereduko Batxilergoko ikasleen berezitasunak, gainerakoek baino lau irakaskuntza-saio gehiago baitituzte astean, edo ibilbideak antolatzeko ezarritako ratioetara iristeko biztanle gutxiko eskualde batzuetan dituzten zailtasunak?

Iruñean, 2022ko martxoaren 31n

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Osasun Zientzien Fakultatearen eraikin berria egiteko lehiaketari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Osasun Zientzien Fakultatearen eraikin berria egiteko lehiaketari buruzkoa (10-22/POR-00154).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer egingen du Nafarroako Gobernuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Osasun Zientzien Fakultatearen eraikin berria egiteko lehiaketa huts deklaratu ondoren?

Iruñean, 2022ko martxoaren 31n

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, Nafarroan osasun arloko aseguru pribatuek izandako bilakaerari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, Nafarroan osasun arloko aseguru pribatuek izandako bilakaerari buruzkoa (10-22/POR-00155).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten duzu Nafarroako Gobernuak lehendakari bezala, Nafarroako osasun arloko aseguru pribatuen bilakaerari buruz?

Iruñean, 2022ko martxoaren 31n

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, EH Bilduk eta Nafarroako Gobernuak ekainaren 2ko 4/2008 Foru Dekretuko 68. artikuluan aurreikusitako zenbatekoak aldatzeko sinaturiko akordioa betetzeari buruzkoa.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztutako galdera, EH Bilduk eta Nafarroako Gobernuak ekainaren 2ko 4/2008 Foru Dekretuko 68. artikuluan aurreikusitako zenbatekoak aldatzeko sinaturiko akordioa betetzeari buruzkoa (10-22/POR-00156).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten

dio Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Elma Saiz Delgado andreari, Osoko Bilkuran erantzun dezan:

2022ko martxoaren 31n bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren eskualdaketa sinatu da eta Nafarroako Parlamentuan Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa onetsi da.

Nafarroako Gobernuaren eta EH Bilduren artean sinatutako aurrekontu-akordioan jasotzen da 4/2008 Foru Dekretuaren 68. artikuluan aurreikusitako zenbatekoen handitzeari heldu behar zaiola. Aipatu konpromisoan zehazten denez hori gauzatu beharko da hiru hilabeteko epean, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera edo Hitzarmen ekonomikoaren onesten denetik.

Kontuan hartuz biak onetsi direla eta konpromiso hori formalizatzeko epe bat ezarrita dagoela, honako galdera hau aurkezten dugu:

Zer urrats egin gogo du Nafarroako Gobernuak EH Bilduren eta Nafarroako Gobernuaren artean sinatutako akordioa gauzatzeko, ekainaren 2ko

4/2008 Foru Dekretuaren 68. artikuluan aurreikusitako zenbatekoak aldatu eta era horretan hileko 800 euro baino txikiagoak ez diren zenbatekoak bermatzeko?

Iruñean, 2022ko martxoaren 31n

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

Galdera, toki entitateek jasaten dituzten zerbitzu-kostuen igoerei buruzkoa.

YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak aurkeztutako galdera, toki entitateek jasaten dituzten zerbitzu-kostuen igoerei buruzkoa (10-22/POR-00157).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Yolanda Ibáñez Pérez andreak honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Argia, gasa eta erregaiak hain nabarmen igoztearen ondorioz toki entitateak jasaten ari diren zerbitzu-kostu handien aurrean, departamentuak aurreikusi al du laguntza motaren bat abiaraztea igoerek udal ogasunetan sortzen ari diren kalteak arintzeko?

Iruñean, 2022ko martxoaren 31n.

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

Galdera, Espainiako Gobernuko Ogasun Ministerioari Nafarroako Foruzaingoaren lanaldien, ordutegien eta ordainsarien erregelamenduzko garapena egin ahal izateko gaikuntza bereziaren eskaera ofiziala aurkeztu izanari buruzkoa.

JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkeztutako galdera, Espainiako Gobernuko Ogasun Ministerioari Nafarroako Foruzaingoaren lanaldien, ordutegien eta ordainsarien erregelamenduzko garapena egin ahal izateko gaikuntza bereziaren eskaera ofiziala aurkeztu izanari buruzkoa (10-22/POR-00158).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen José Suárez Benito jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zergatik ez dio aurkeztu Espainiako Gobernuko Ogasun Ministerioari eskari ofizial bat, Nafarroako Foruzaingoaren lanaldien, ordutegien eta ordainsarien erregelamenduzko garapena egin ahal izateko gaikuntza berezirako, Nafarroako Poliziei buruzko 23/2018 Foru Legean ezartzen den moduan

Iruñean, 2022ko martxoaren 31n

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

Galdera, Herritarrekiko Harremanetako Batzordeak hartutako jarreraren ondoren Nafarroako I. Bizikidetza Plan Estrategikoak duen egoerari buruzkoa.

JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jabi Arakama Urriaga jaunak aurkeztutako galdera, Herritarrekiko Harremanetako Batzordeak hartutako jarreraren ondoren Nafarroako I. Bizikidetza Plan Estrategikoak duen egoerari buruzkoa (10-22/POR-00159).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Jabi Arakama Urriaga jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak Legebiltzarreko apirilaren 7ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer egoeratan geratzen da Nafarroako Bizikidetzaren Lehen Plan Estrategikoa, Nafarroako Parlamentuko Herritarrekiko Harremanetako Batzordeak hartutako jarreraren ondoren?

Iruñean, 2022ko martxoaren 31n

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urriaga

Galdera, Espainiako Gobernuak onetsitako alokairu-prezioaren mugaketari buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako galdera, Espainiako Gobernuak onetsitako alokairu-prezioaren mugaketari buruzkoa (10-22/POR-00160).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentariaren elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak apirilaren 7ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nahikoa al da alokairuan bizi diren Nafarroako herritarrentzat Espainiako Gobernuak alokairuaren prezioari jarri dion muga?

Iruñean, 2022ko martxoaren 31n

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, Nafarroako Gobernuak gure foru-erkidegoaren energia-autonomia azkartzeko hartuko dituen neurriei buruzkoa.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak gure foru-erkidegoaren energia-autonomia azkartzeko hartuko dituen neurriei buruzkoa (10-22/POR-00161).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190, 191 eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri hartuko du zure Gobernuak gure foru-erkidegoaren autonomia energetikoa azkartzeko?

Iruñean, 2022ko martxoaren 31n

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, jakiteko zer neurri estruktural hartuko diren energia-hornidura eskuratu ahal izatea bermatze aldera.

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zer neurri estruktural hartuko diren energia-hornidura eskuratu ahal izatea bermatze aldera (10-22/POR-00162).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako lehendakari María Chivite Navascués andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Pairatzen ari garen energia-krisia ondorio negargarriak izaten ari da, Ukrainako gerraren ondorioz larriagoturik, bai herritarrengan bai gure enpresa-ehunduran.

Berriki ezagutu ditugu Europar Batasunak, Estatuko Gobernuak eta Nafarroako Gobernuak ondorio horiek epe laburrean samurtze aldera hartutako tala-neurriak. Horri buruz:

Zer neurri estruktural hartzera doa Nafarroako Gobernua, bermatze aldera Nafarroako herritar eta industria guztiek oinarritzeko energia-hornidurak eskuratu ahal izatea?

Iruñean, 2022ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

Galdera, Euriborraren gorakadari eta goranzko joerari buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Euriborraren gorakadari eta goranzko joerari buruzkoa (10-22/POR-00163).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak 2022ko apirilaren 7ko Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Zer agertoki aurreikusten dira epe ertain eta luzera, Euriborraren gorakadak eta goranzko joerak Nafarroako familien eta etxeen ekonomian izanen duen eraginari dagokionez?

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, erregaiaren litroko hogeitazentimoko dirulaguntza ezartzeak Foru Ogasunean izanen duen eraginari buruzkoa.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, erregaiaren litroko hogeitazentimoko dirulaguntza ezartzeak Foru Ogasunean izanen duen eraginari buruzkoa (10-22/POR-00164).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak apirilaren 7ko Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

2021. urtea inflazio mardul batekin amaitu zen, eta 2022ko lehenbiziko hiru hilabeteak jadanik bukatuta daukagularik, egoera ez da gelditu hobetzen hasi gabe soilik, baizik eta okerrerranzko bidetik amildu da, Errusiak Ukraina inbaditzearen ondorioengatik, halako moldez non joan den mendeko 80ko hamarkadatik ezagutzen ez ziren datuetara iritsiak baikara.

Populazioarentzat oinarritzkoak diren zenbait produkturen prezioen igoerak, hala nola gasaren eta elektrizitatearenak, goranzko txanpa geraezin eta ikaragarria hartu du, arlo honetako araubidea eguneratu gabekoa eta hankamotza dela aprobe-txatuz.

Era berean, erregaien kostuaren gorakadak haserre nabaria sortu du, garraioaren sektorean ez ezik, baita, oro har, gizarte osoan ere; horregatik, joan den astean Gobernu zentralak erabaki zuen hogeitazentimoko dirulaguntza ezartzea, litroko, kontsumitzaile guztientzat.

Printzipioz, gasolindegien sektoreak berak aurreratu beharrekoa da zenbateko hori, eta jadanik ohartarazi zaigu jabe txiki askok ezinezko dutela neurri hori beren bizkar hartzea. Jarraian, eta daukagun zerga-sistema propioa dela-eta, Nafarroako Gobernuari dagokio aurrerapen horien konpentsazioa ematea, geroago diru hori Estatua-rengandik jasotzeko, data zehaztugabe batean.

Neurri koiunturala hutsa da nabariki estrukturala den problematika baterako. Ikuspegiak haragokoa behar du izan, eta ekoizpen- eta kontsumo-sisteman errotiko aldaketei ekin behar zaie.

Horregatik guztiagatik, honako ahozko galdera hau egiten diogu Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari:

Neurri horrek zer eragin izanen du Foru Ogasunean, eta nola kudeatuko da?

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Galdera, Ukrainaren inbasioaren inpaktu ekonomiko eta sozialari erantzuteko plan nazionalari eta plan horretara Nafarroako Foru Komunitatetik eginiko ekarpenei buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Ukrainaren inbasioaren inpaktu ekonomiko eta sozialari erantzuteko plan nazionalari eta plan horretara Nafarroako Foru Komunitatetik eginiko ekarpenei buruzkoa (10-22/POR-00165).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2022ko apirilaren 7ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du Espainiako Gobernuak Ukrainaren inbasioaren inpaktu ekonomiko eta sozialari erantzute aldera prestatu duen plan nazionalaz eta plan horretara Nafarroako Foru Komunitatetik eginiko ekarpenez?

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

Galdera, krisi honetan kaltetuenik suertaturiko herritar eta sektoreentzako laguntza berririk ezartzeari buruzkoa, Espainiako Gobernuak jada iragarri dituenen osagarri izanen direnak.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, krisi honetan kaltetuenik suertaturiko herritar eta sektoreentzako laguntza berririk ezartzeari buruzkoa, Espainiako Gobernuak jada iragarri dituenen osagarri izanen direnak (10-22/POR-00166).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik krisi honetan kaltetuenik suertaturiko herritar eta sektoreentzako laguntza berririk ezartzeko, Espainiako Gobernuak jada iragarri dituenen osagarri izanen denik?

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

